

Urte azkeneko jaiak hurbil ditugularik, ba dute euskaldun gurasoek zer eskain beren seme-alabei. Solasordu eder batzuk eskain diezazkiekete, eta era berean euskal historia eta geografia ikasteko aukera eman.

Liburuak, nahiz eta euskara batuan egon, Bizkaiko kutsua du, eta, beraz, oso ulerterraza da guretzat bizkaitarrontzat.

2. BEGIARMEN:

Sei idazle plazara.

«Jakín». Oinati, 1974.

Nahiz eta tituluari sei idazle aipatzen diren, lehen liburu honetan hiru aztertzen dira: Koldo Mitxelena, Larresoro eta Gabriel Aresti.

Ez dugu orain liburu honen azterketarik egingo, zeren arazo horri gure zuzendari berriak beste bide bat emango baitio, irakurleentzat oso interesgarria izango dena.

Dena den, zerbait aipatuko dugu, liburu honen garrantziak ondo merezi baitu.

Aipatu* liburuan ez dira hiru idazlearen literatur balioak aztertzen. Besterik pentsatu dute, «Begiarmen» izenordearen atzean dauden autore biek: euskal literaturaren oinharri diren pertsonaia hauen ideologia azter eta kritika.

Mitxelena aztertzean, F.K. (Federiko Krutwig?) aipatzen da maiz, bion eritziak aurkeztuz. Larresororen tesiak estrukturalismoaren alorrean aztertzen dira, eta, Arestiren kasuan, beronek Euskal Herriaz duen ideiak azaltzen.

Irakurleak gogoz irakurriko dituzke* Mitxelenaren eritziak euskara batuari buruz: zergatik jarri zituen arrazoin soziologikoak teknikoaren gainetik, zein euskara proposatu zuen, Kintanarekin edukitako eztabaidak, etab. Arestiren kasuan, Bontzo Nagusiekin edukitako burrukak, astakeria eta zerrikeriaren definizioak (edo astologia eta zerrilogiarenak), etab. Beharbada, irakurle arruntarentzako parterik astunena Larresorori eskainia da, zeren* estrukturalismoa ez baitago gure artean behar bezala hedatua*; baina hau ere oso ongi dator, liburuari osotasun bat ematen dio eta.

Liburuaren presentazio hau egin ondoan, gauden orain, ANAITASUNA honetan argitaratuko diren kritika sakonagoen zain.

3. MONREAL CIA, Gregorio:

Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII).

Publicaciones de la Excm. Diputación de Vizcaya. Bilbao, 1974.

Liburu berri bat eta liburu handi bat. Ondoko belaunaldi* batzuetan toki jakin bat irabazi duen idazlana. Zalantzarik gabe eta horrelaxe —biribil biribil— esaten dut. Bizkaiko Deretxo Publikoari sekula eskaini zaizkion lanetatik garaienak bat. Bizkaitarren lege zentzuak sortu izan dituen instituzio politikoen azterketa zabala, mardula, argia. Pozik baino pozago eskuratu dut liburua, eta beste hainbeste gertatu zaie, nonbait, «Gerediaga Saria» izendatu behar zutenei, liburu honi eman baitiote aurtengo lehen erdal saria.

Gregorio Monreal Zia, liburuaren autorea, nafarra da; baina aspalditxotik Bizkaian bizi izan dena. Gaizki ez bagaude, Deustuko Unibertsitatean irakasle izana, eta orain Donostiako Deretxo Fakultatean bere ikaslekua duena. Monreal Zia gaztea da; baina gizon heldu* baten patxadaz egindako lana eskaini digu. Jakin dugunez, irakasaulki batetarako lehiaketa ofizialetan dihardu orain. Liburu hau ez du, noski, arkupe txarra izango, mailaka mailaka behar den tokiraino iristeko.* Horixe opa diogu guk behintzat ikertzaile bizkorrari.

Baina gatozen gaiaren harira. Laudorioz betetako sarrera batekin hasten da liburua. Madrilera irakasle den eta itzalik

zabalena duen Anfonso García Gallok egiten du hitzurre hori. Aipatzen dituen balioen artean, jaso ditzadan hauk*: «Con seriedad y objetividad, sin afán polémico, con sentido crítico que le lleva a valorar los datos. (...). La investigación ha sido realizada sobre un copioso material de fuentes, en parte impresas, pero en su mayoría aún inéditas. (...) ...constituyen buena prueba de la amplitud y rigor con que se ha elaborado el libro». Eta nire eritzien gainera dagoen García Galloren kritika-sarrera hau honela amaitzen da: «La amplitud y profundidad de la investigación realizada hacen que este libro constituya una de las más serias aportaciones al estudio del régimen institucional público del Señorío de Vizcaya».

Zertaz ari da, bada, liburu hau? Hiru partetan sailkatu du gaia autoreak. Lehen partean, Bizkaia lurraldeko eta instituziozko eraketa aurkeztzen da. Bigarrean, Bizkaiko Jaurerria* osatu zuten eskualdeen* instituzio egitura* azaltzen da. Eta hirugarrean, Bizkaiko Batzarre Nagusiei dagokiena ematen da.

Liburu osoak zentzu historiko batekin ikusi nahi ditu bizkaitar instituzioak. Hori berehala ageri da, titulutik bertatik hasita. Baina lehen parteak ematen digu, aldiaren ibilbide bihurriari jarraikiz, historia haren jaiomina. Bizkaia, eginaren eginaz bilakatu* zen Bizkai. Hau da, mendez mendez eta herri osaren izan-nahizko ardatzari loturik gertatu ziren Jaurerriko lurralde sakabanatuak Bizkai oso bat. Errazegi amestu ohi dugu, XV. mendetik XIX. erainoko Bizkai hura* betidanik egin eta trinkoa izan zela, eginahal askoren ondorena izan zela ahantziz. Lehen parteak horixe uzten digu argitan. Bake lozorroak eta herstualdi urduriak iraganik burutu zuen Bizkaiak bere herrialdearen osakuntza eta instituzioen antolaketa.

Jaurerriaren alderdi guztietatik elkartutako lurrek ez zuten, ordea, beste gabe beren nortasuna galdu: Lur Irekiak, Hiriek,* Enkartazioek, Durangaldeak eta beste eskualdeek (Laudio,* Orozko, etab.) eutsi* egin zieten beren bereizgarri. Ezin berdin* Hiriak eta Lur Irekia, berez zekartèn kontrakotasun hura isilpera egotzi* nahi ez bada bederen.* Gure kondairaren sokatirarik jakingarrietakoa hauxe. Eta nola ahantz Enkartazioak eta Durangaldea? Horien jatorri iluna, iraun beharra, instituzio-gintza? Horiek guztiok erakusten dute, bizkaitarrek eduki zuten politik sormena, asmamena.

Gehienetan, Merinaldeak* eta Elizateak* baino ezagunagoak dira gure artean Bizkaiko Batzarre Nagusiak. Jaurerriaren legegailu hau xehetasun guztiakin ematen da liburuan. Ezjakinontzat irakurgarriago gertatuko zaizkigu, Bizkaia gobernailuz (Erregimendu Orokorraz* eta Diputazioaz) azken horrialdeetan idatziak.

Zinez, Monreal Zia jaunaren lan hau baliotsua da, gure kondairarekiko galde-erantzunez bete betea. Historia oro* bezala, beste alde askotatik hobegarri dena; baina, beste historia osagarri guztiakin batera, inola ere zapuzgarri* ez dena. (Joseba Intxausti).

bitza, beiz
daude, dagoz
dezagun, daigun
dezaten, daien
diezazkiekete, deiskioeez
digu, deusku
dio, deutso
diogu, deutsagu
diot, deusat
diote, deutsoe
ditzadan, daidazan
ditzaten, daiezan
dizkigute, deuskuez
dizuet, deusuet
iezaguzue, eiskuzue
gaude, gagoz
genieke, geuskioe
genitzake, geinkez
lezake, leike
zaie, jake
zaigu, jaku
zaio, jako
zaizkigu, jakuz

Albistariak:

Xabier GEREÑO
Jon JAKA
Gexan LANTZIRI
Joan Mari MENDIZABAL
Joan Mari TORREALDAI
J. M. ZEBERIO

zaizkio, jakoz
zaizu, jatzu
zazue, eizue
zekarten, ekarren
zeuden, egozan
zien, eutsen
zieten, eutseen
zigun, euskun
ziguten, euskuen
zion, euson
zioten, eutsoen